

Kaixo GAZTE!

Gutun honen bitartez, **GAZTELEKU BIRTUALAREN** sorrerari buruz informatu nahi zaitugu.

### **Zer da GAZTELEKU BIRTUALA?**

Zuentzako sortu dugun espazio propio bat da, besteak beste egoera honi ikuspuntu berri bat emateko eta beste gazteekin komunikatu ahal izateko; horrekin batera, gauza berriak ikasteko momentua izan daitekeela erakutsi nahi dizuegu. Horretarako kanal desberdinak sortu ditugu:

1. Gaztelekuak helbide elektronikoa bat zabaldu du: **guregaztelekua@gmail.com**. Helbide horren bitartez ekintza desberdinetara gonbidatuko zaituztegu eta elkar ikusteko loturak bidaliko dizkizuegu.
2. Elkar aurpegiak ikusteko eta komunikazio zuzenagoa egiteko **Jitsi meet** erabiliko dugu. Oso tresna erraza da. Saioa hastea bakarrik eskatzen du eta ez da ordenagailuan ezer gehiago instalatu behar. Ez duzu inolako zerbitzutan saiorik hasi beharrik ere; zure mikrofonoa eta zure bideokamera baimentzearekin nahikoa izango da. Lehengo egunean, esteka bat iritsiko da zure posta elektronikora, eta google Chrome-tik ireki beharko duzu (automatikoki irekitzen bada Explorer, Mozilla eta abarrekin, Chrome-ko barran esteka hori kopiatu besterik ez duzu egin behar). Esteka hau GAZTELEKU BIRTUALEKO ordu guztietan erabiliko duzuna izango da.
3. **Youtuben** kanal bat zabalduko dugu, **guregaztelekua** deitzen dena. Hor begiraleek berain bideoak igoko dituzte eta zuei hainbat lehiaketetan parte hartzeko gonbitea bidaliko dizuete.
4. **Instagram** -eko kontua ere martxan jarri dugu zuekin kontaktu zuzena izateko.

Guzti hau zuentzat gustukoa eta dibertigarria izatea espero dugu, egun hauek ahal ditugun hobekien pasa ditzagun eta lehen esan bezala, ZERBAIT BERRIA IKASTEKO AUKERA izan daitekeelakoan, BETI EBOLUZIOAN!

Gurekin GAZTELEKU BIRTUALEAN parte hartu nahi baduzue, idatzi gure helbidera eta jarri gurekin kontaktuan: [guregaztelekua@gmail.com](mailto:guregaztelekua@gmail.com). Eta programaketari buruzko informazioa eta ordutegiak bidaliko dizkizuegu.

DENON ARTEAN LORTUKO DUGU! ANIMO!

**GAZTELEKUKO BEGIRALE TALDEA**